


INFLAZIOA

Prezioek gora egin dute berriro apirileko jaitsieraren ostean

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



KPI indizeak, apirilean moteltze arina jaso ondoren, ezin izan zuten jaitsiera hori finkatu azken hilabeteetan, eta goranzko bideari heldu zion berriro. Izan ere, bost hamarren igo zen maiatzean eta %8,3an kokatu zen. Elektrizitatea merkatu zen arren, erregaien eta elikagaien prezioak maiatzean berriro garestitu zirelako egin zuen gora.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2020	2021	2022ko maiatza	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,1	3,1	8,3	8,3
Azpiko inflazioa (%79,5)	0,8	1,0	4,7	3,7
- Elikagai landuak (%15,8)	1,7	1,4	8,7	1,4
- Industria ondasunak (%22,7)	0,3	1,0	4,2	0,9
- Zerbitzuak (%41,0)	0,8	0,7	3,4	1,4
Hondar inflazioa (%20,5)	-4,0	12,1	22,4	4,6
- Landu gabeko janariak (%9,3)	4,0	2,6	10,7	1,0
- Energia (%11,2)	-9,4	21,3	32,4	3,6


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Erregaiak KPIaren igoeran duten eraginari dagokionez, Europar Batasunak Errusiatik itsasoz dakarren petrolio erosteari jarritako betoagatik handitu ziren, eta, ondorioz, Brent gordinaren prezioak balio nabarmen altuetan jarraitu zuen. Horrela, gasolinaren prezioek marka historikoak jaso zituzten, eta eraginik gabe utzi zuten Espainiako gobernuak apirilean egindako 20 zentimoko zerga deskontua. Bestalde, elikagaien prezioek gora egin dute azken hilabeteetan (%10,1) INEK bere serie historikoa argitaratu

zuenetik erritmo bizienean. Era berean, bai garraio taldeak (%13,6), lehenago ere aipatu den erregaien bilakaeragatik, bai etxebizitza taldeak (%17,8) tasa altuak eskuratu zituzten, nahiz eta azken horrek beheranzko joerarekin jarraitu zuen, elektrizitatearen prezioen jaitsieraren ondorioz. Era berean, hotelen eta ostatu zerbitzuen gorakada ere nabarmendu zen (%6,1), 2021eko egoerarekin alderatuz gero, garai hartan beherapenak eskaintzera behartuta baitzeuden.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2022ko maiatza

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	8,3	8,7	8,1
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	10,1	11,0	8,7
Edari alkoholduak eta tabakoa	4,1	3,4	2,7
Jantziak eta oinetakoak	2,3	1,7	1,7
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	17,8	17,5	16,3
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	5,9	5,9	5,9
Osasuna	0,2	1,2	1,3
Garraioa	13,6	14,9	14,0
Komunikazioak	-0,2	-0,2	-0,4
Aisia eta kultura	2,9	2,3	3,6
Hezkuntza	1,5	1,2	-0,9
Jatetxeak eta hotelak	6,1	6,3	7,1
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	4,0	3,5	2,6

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.